

## **GUERO-REN FAKSIMILEZKO EDIZIOA AURKEZTEAN**

*Durangoko Liburu-azokan, 1988ko Abenduaren 4ean*

*Fr. Luis Villasante*

Juan Manuel Velasco, Director General de Libro y Bibliotecas  
Hizkuntz Politikako Idazkaritzako Roman Berriozabal ordezkaria  
Jose Luis Telleria Gipuzkoako Diputazioko Kultura-Diputadua

**Jaun-Andreak:**

Gutziz pozgarria da Euskaltzaindiarentzat, eta enetzat, noski, argitarapen berri honen aurkezpena gaur eta hemen egitea, hots, *Guero*-ren lehen edizioa, 1643koa, faksimile erara zehatz-mehatz orain agertua. Eta gutziz pozgarria da halaber Velasco jauna INLE delakoaren Zuzendaria aurkezpen honetan gurekin gertatzea. Gure amets hau mamitu baldin bada, jaun honen babes eta laguntzari zor zaio. Eskerrak ematen dizkiot, bada, bihotz-bihotzez Euskaltzaindiaren eta Euskal Herriaren izenean.

*Guero*-ren lehen edizioa, esan dudanez, 1643. urtean Bordelen G. Milanges Erregeren inprimatzailea baitan egin zen.

Gaurko argitarapena lehenbizikoaren berregintza izanik, lehengo hura edukitzea eta oraingo hau edukitzea orobatsu dela esan daiteke. Ez da ezertxo ere aldatu, ez ortografia, ez eta hutsak ere. Badira, noski, lehen edizio horretan huts batzuk, paginazioan esate baterako, eta bai bestelakoak ere, baina oso guti. Lan benetan arduratsua eta arretaz egina burutu zuten Milangesen lantegiko ofiziale haiek, gaur beti egiten ez dakiguna. Nik ez dakit Milangesen inprimerian euskaldunik ba ote zen; segur aski ez; haatik, bazekiten lana ongi egiten. Badugu zer ikasirik haiengandik.

Baina goazen aurrera. Zertarako behar zen honelako argitarapen bat, gaur *Guero*-ren edizio gaurkotuak ditugularik, erdal itzulpen eta guzti, gainera? Lehenik, euskal literaturaren maitale den ororentzat pozgarri eta bihotz hunkigarri delako, ene ustez, "editio princeps" horren berregintza hau edukitzea.

Lehenbiziko edizioaren aleak oso bakan dira gaur. Bigarrenetik, urte muga jakinik gabe eta titulua aldatuz eta, dirudienez, legezko baime-

nik gabe egin zeneko horretatik, bai, badira ale gehiago, baina ez gehiegi. Hirugarrena, berriz, Intxauspek egin izan zuen 1864ean, baina aldaketa eta atzekoz aurrera jartze asko ditu, eta horregatik ez da hain fidagarri. Eta gure mendera arte ez dira hiru horiek baizik egin.

Orain bada, gaurko argitarapen honen jabe denak badauka zalantzazko kasuetan iturrira artez eta zuzen joateko bidea. Gaur zabalkunderako edizio gaurkotuak nahi izaten ditugu, ortografia aldatuz etab. eginak, baina euskal testu zaharrek inoiz, han edo hor letra bati ematen zitzaion balioa ez jakinik, eta iturrira zuzen jotzea bide bat izan daiteke zalantzak aienatzeko. Guzti horrengatik, euskal literaturaz eta euskal jakintzaz kezkatutik den orok nahiko du, nik uste, argitarapen berri honen jabe izan.

Esan dezagun, laburzki baino ez bada ere, nor den Axular eta zer den *Guero*, haren liburu famatua. Duela urte batzuk agertu nuen horretaz liburuskat bat, gaur agorturik dena: *Axular: Mendea, Gizona, Liburua*, 1972an aterea. Urdazubiko hirian jaio zen Axular, Nafarroa Garaian. Bere ikasketa nagusiak Salamankako Unibertsitatean egin zituen. Hori lehenetik ere bagenekien, baina gaur zehazkiago dakigu, zeren eta Mitxelena-izen alaba Itziar-ek Axularren izena aurkitu baitu Unibertsitateko ikasleen zerrendan. Gainera, *Guero* horretan Axularrek izendatuki aipatzen du Zumel, Salamankan irakasle zena, eta espresuki esaten du: "Hala erraiten du ene escola nabusi batec". Beraz, Zumelen ikasle izan zen Axular Salamankan. Bada oraino Salamankako beste irakasle bat, Domingo de Soto, Axularrek bi aldiz aipatzen duena, baina pasarteok haren liburuetatik hartuak izan daitezke, nahiz eta Axular, artez haren ikasle ez izan.

Jakina denez, Axularren *Guero* autore zaharren aipamenez josirik ageri da; aintzinateko autoreak dira gehienak, bai kristauak eta bai jentilak ere. Modernoagoak edo beragandik hurbilago zeudenak ere erabili izan ditu, noski, baina horiek gehienetan ez ditu beren izenez aipatzen. Kasu honetan dago Fr. Luis de Granada. Beronen laugarren mendeburua ospatzen da aurten. Julio de Urquijo jaunak aspaldi frogatu zuen Axularren *Guero*-n badirela pasarteak Fr. Luis de Granadagandik hartuak, eta nik gorago aipatu dudan liburuan, 35 pasarte aipatzen ditut autore horrengandik hartuak diruditenak. Eta beharbada egongo dira gehiago ere. Axularren aipamenean eta iturrien azterketa egin gabe dago oraindik. Aurten autore horren mendeburua izanik, abagadune horretaz baliatu gara *Guero*-ren argitarapen hau egiteko, eta hala jarririk dago liburuaren kolofoiari. Beherago esango dugunez, ordea, handik eta hemendik garraio batzuk izate horrek ez dio bere nortasunetik den gutiena ere kentzen Axularren liburuari.

Axular apaiz egin zen, eta apaiz egite hori gertatu zen, dirudienek, adinean pixka bat aurrera zihoanean. Tarbesen apaiztu zen, gainera. Eta

berarekin batean ordenatu zirenen artean, gero Karitateko Alaben sor-tzailea izango den S. Vicente de Paul zegoen. Ordurako Axular Iruñeko eliz barrutia utzi eta Baionakora pasatua zen. Zergatik egin zuen hori? Ez dakigu xuxen. Baina, alde batetik, berak jaiotzatik zekien euskara-modua edo euskalkia lapurtarra zen, eta, bestetik, Lapurdiko ekonomi egoera aski ona zen garai hartan, Ternua edo Terranobara baleak harrapatzera joan ohi ziren arrantzaleei esker.

Saran, Lapurdiko aldean, egongo da erretore gure Axular, baina bere sorterritik oso hurbil, halere, bien bitartean muga politikoa delarik.

G V E R O  
 B I P A R T È T A N  
*partitua eta berecia,*  
 L E H E N B I C I C O A N  
 E M A I T E N D A , A D I T C E R A ,  
 cen bat calte eguiten duen, luça-  
 mendutan ibiltceac, eguitecoen  
 gueroco utzteac.

*Bigarrenean quidatcenda, èta aiticinatcen, luça  
 mēduac utciric, bere hala, bere eguin bi-  
 dearì , lothu nahi çaicana.*

Escritura faindutie, Eliçaco Doctor etatic-  
 eta liburu debocinozco etaric. Axular Sa,  
 raco errotorac vildua,

*Ne tardes conuerti ad Dominum, & ne differas  
 de die in diem, Ecclcl. 5.*



B O R D E L E N,  
 G. M I L A N G E S Erregueren Imprima-  
 çaillea baithan.  
 M. D C. X L I I I.

Zer da, bada, *Guero*, Axularren obra famatua? Bere egituraz eta eitez Berpizkunde edo Renacimiento garaiko obra. Baditu, bai, handik eta hemendik hartutako gaiak, baina, hori gorabehera, egileak euskaraz eta euskaldunentzat pentsatua eta zuzendua den liburuia egiten asmatu du. Euskal jeinuaren jabe da Axular, barnetik ezagutzen eta menderatzen du hizkuntza, zaluki eta trebeki erabiltzen du bere erreminta; beste hitzez esanik, iturriari ura bezain gozo dario Axularri elea.

Euskal prosaren sortzailea dugu Axular, duda gabe. Zehazkiago esanik, Europako sartaldean onarturik den prosa egiteko moldea, Erroma eta Greziako tradizioetik heldu dena, hura bera ekarri zigan etxera; baina, zoritxarrez, gure aroan purismo hertsi baten ondorioz tradizioaren eten-dura gertatu da, prosaren normalkuntza lortzeko kaltegarria izan den etendura. Eta beharko dugu berriz ere tradizioaz elkartu, agian egokitzen batzuk eginez.

*Guero* liburuaren gaia badakizute zein den, bestalde: Axularrek kristau bekatiari burutik kendu nahi dio ez konbertitzeko atera ohi duen aitzakia: "Konbertitu, bai —esaten du jendeak— baina ez orain, bihar, gero". Jarrera honen desarrazoina frogatzeko, mila adibide, enxplu eta autoritate metatzen ditu. San Agustinek ere bere denboran antzeko zerbait zioen: "Cras, cras" esaten duela bekatiariak, "bihar onduko naiz", alegia, "orain ez".

Nik Axularren *Guero* ortografia gaurkotuan eta erdal itzulpen eta guzti argitaratzeko asmoa hartu nuenean, ibili nintzen argitaratzaile bila Euskal Herriko editoreen artean. Baina inor ez zen ausartzen. "Nork irakurriko du hori? Liburuak ez du irteerarik izango", zioten. Orduan Madril eta Barzelonara jo behar izan nuen. "Espirituales Españoles" sailak eta Juan Flors argitaratzaileak hartu zuten nere lana. Dena esan behar da, ordea: inprimatze lana, bai, Donostian egin zen, "Gráficas Izarra"n, 1964ean. Uste baino arrakasta handiagoa izan zuen. Gogoan dut oraino zer esan zidan behin Pedro Sainz Rodríguez jaunak, sail horren aholkulari zenak: "Gure bilduman ahitu den liburu bakarra Axularren *Guero* izan da. Hori enetzat arraro xamarra eta ulertezina da, politika ez baldin badago tartean, behinik behin". Nik esan nion: "Hara, jauna. Erdaldunentzat zer den Cervantes, eta hori da, besteak beste, Axular guretzat. Gaur bada gaztedi bat euskararen arrangura duena. Nahi dute euskara sustraitik menderatu. Badakite horretarako euskal literatura-aren maisu-lan bat gidari hartzea bezalakorik ez dagoela, eta argitarapen honekin topo egin dutenean, ba erosi egin dute. Hori da guztia".

Bukatzeko: *Guero*-ren faksimilezko edizio honen asmoa mamitzen edo gauzatzen parte hartu duten guztiei eskerrak: Juanito San Martini, Juanjo Zearretari, Grafo etxeari, eta nola ez, INLE delakoaren zuzendari

den Velasco jaunari. Eta *Guero*-ren argitarapen berri honek izan dezala aurrekoek izan zuten bezalako arrakasta edo handiagoa! Halabiz!

\* \* \*

Es para mí, y lo mismo para la Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia, motivo de íntima satisfacción el presentar hoy esta edición facsímil del *Guero* de Axular, teniendo entre nosotros al director general del Instituto Nacional del Libro Español, Sr. Velasco. Gracias a su generosa ayuda se ha podido plasmar en realidad el viejo sueño de llevar a cabo esta edición. Tenemos, pues, delante la reproducción exacta de la edición príncipe, hecha en Burdeos en 1643 en casa de G. Milan- ges, impresor real (del rey de Francia, claro).

Al ser reproducción exacta dicho se está que se publica tal cual salió de dicha imprenta. No se cambia nada, ni la ortografía ni aún siquiera las faltas que pudiera haber, y hay algunas, en efecto. Hay por ejemplo, algunos errores en la paginación, algunas erratas, más bien pocas.

En realidad es una obra primorosa —bien hecha, quiero decir— la que realizaron los oficiales de la casa Milanges en aquel lejano 1643. Yo no sé si en aquella imprenta había gente que sabía el vasco; más bien me inclino a pensar que no; pero sabían trabajar bien. Lo que actualmente en nuestros días, en que nos enorgullecemos de nuestro vasquismo y de nuestros adelantos técnicos, no siempre sabemos hacer. Alguna experiencia tengo de esto y sé que, con honrosas excepciones, las galeras de libros y artículos en vasco se presentan cosidas de faltas. Como disculpa te dicen que los obreros no saben vasco. Pero si se les presentan buenos originales ¿por qué no han de ser capaces de transcribir fielmente lo que en ellos hay, aunque no entiendan la lengua? ¿No se publican hoy mismo libros en español editados en Japón, en Alemania, etc., y están irreprochablemente realizados? A buen seguro que los obreros de esas casas no conocen el español, pero tienen el sentido de responsabilidad y el pundonor de hacer bien las cosas. Buena lección para nosotros.

Pero vamos al grano. Alguien podrá preguntar: ¿Para qué sirve una edición de estas características, si hoy hay ediciones modernas actualizadas del *Guero*?

Respondiendo a esta pregunta diremos, en primer lugar, que para todo amante de la literatura vasca es motivo de gozo tener en sus manos una reproducción exacta de la edición príncipe del *Guero* de Axular, tanto más cuanto que sólo muy pocos ejemplares de dicha edición han llegado hasta nosotros. De la 2.<sup>a</sup> edición, hecha en época desconocida con el título cambiado (*Gueroco guero*) y que parece fue una edición pirata, sí han llegado más, pero tampoco demasiados. La 3.<sup>a</sup>, hecha por Inchauspe en Bayona en 1864, fue objeto de muchas manipulaciones y

trastrueques en la ordenación del texto, y por ello tienen menos valor. Y no hay más ediciones del *Guero* hasta nuestro siglo.

En segundo lugar, el que posea esta edición facsímil que hoy presentamos, podrá en casos de duda acudir a la fuente para hacer luz en las dudas. No olvidemos que el cambiar la ortografía, cuando se trata de textos relativamente antiguos, trae sus problemas, no siempre fáciles de solucionar. Ciertos signos, letras o conjuntos de letras han tenido diversos valores según las épocas y las variedades de la lengua; entonces el sistema de transliteración adoptado para actualizar la ortografía puede fallar o no ser acertado en algún caso concreto. Por ello, para todo el que se interesa por la lengua y literatura vasca resulta de interés y de valor práctico el poseer la edición príncipe o una reproducción exacta de la misma.

A todo esto, ¿quién fue Axular y qué es el *Guero*? Hace unos años publiqué un ensayo, hoy agotado, sobre Axular, su época y su libro. Axular nació en Urdax, villa de Navarra situada en el extremo Norte del viejo reino, en época en que la Alta Navarra y la Baja se hallaban ya políticamente separadas entre sí. Hizo sus estudios (aparte de los primeros que pudo hacer en la Colegiata de su villa natal) en la Universidad de Salamanca, que se hallaba entonces en su mejor hora. Se sabía ya que Axular había estudiado en Salamanca, pero últimamente la hija de Luis Michelena, Itziar, ha llegado a descubrir su nombre en las listas de alumnos de la vieja Universidad. Y en el *Guero* Axular cita a Zumel, profesor de Salamanca, de quien explícitamente afirma que fue maestro suyo; también cita por dos veces a Domingo de Soto, profesor de Salamanca, aunque no parece que Axular fuera oyente de éste, como lo fue de Zumel.

Cualquiera que ha hojeado el *Guero* sabe que esta obra está literalmente cuajada o cosida de textos y citas de viejos autores, o sea, autores de la antigüedad, tanto cristiana como pagana. Cuando se trata de autores más modernos o cercanos a él, no es que Axular no los conozca o emplee, pero tiende a no citarlos. Este es el caso de Fr. Luis de Granada. Ya Julio de Urquijo descubrió una serie de textos del *Guero* en que la dependencia respecto al granadino es manifiesta, y yo en el ensayo al que me he referido hace poco, he podido señalar algunos más. Y es posible que haya más todavía. El estudio de las fuentes del *Guero* está aún por realizarse. Celebrándose este año el 4.º centenario de la muerte de Fr. Luis de Granada, se ha aprovechado esta ocasión para esta edición facsímil del *Guero*, y así se hace constar en el colofón.

Axular se ordena de sacerdote a edad bastante madura, a lo que parece. Y se ordena en Tarbes. Entre los que se ordenaron con él se encontraba el que sería San Vicente de Paúl, fundador de las Hijas de la

Caridad. Poco antes Axular había causado baja en la diócesis de Pamplona y pasado a pertenecer a la de Bayona. No sabemos a ciencia cierta cuál fue el motivo del cambio. Una razón pudo ser que la variedad vasca de la villa natal de Axular es más próxima a la del país de Labort que a la de Navarra; otra razón o motivo pudo ser que el país labortano gozaba a la sazón de una cierta prosperidad económica, gracias sobre todo a la pesca de la ballena en Terranova.

Hasta Aránzazu, donde yo vivo —aunque hoy nos parezca increíble— venían los pescadores labortanos o sus mujeres o sus novias a pedir o dar gracias al cielo por los que hacían estos viajes erizados de peligros. Así consta por una vieja historia del Santuario de Aránzazu, escrita en 1648, que permanecía inédita en el archivo y que yo edité en las páginas de *Scriptorium Victoriense*. Véase el siguiente pasaje:

“Y no es menos la devoción que tienen los del Reyno de Francia, pues de más de veinte leguas de la tierra adentro viene todos los años muchísima gente en romería, así hombres como mujeres, y es cosa particular; porque las mujeres vienen por la pascua del Espíritu Santo, que es tiempo en que sus maridos están en Terranova y Noruega a la provisión del bacallao y vallas; y vienen con tanta devoción, que es para edificar al mundo, pues siendo los caminos tan ásperos, y en particular lo alto de la Aloña, cuyas cimas pasan en más de tres leguas de subida y bajada, siendo toda ella pedregosa, llena de espinas y sin camino, vienen por ella a pie y descalzas; y como la montaña es tan alta, de ordinario hay nieblas y lluvias, de suerte que llegan en esta santa casa muy afligidas, mojadas y cansadas; y de esta suerte, sin admitir abrigo de hospedería y aposentos, velan toda la noche en la iglesia con tanta devoción y afecto, que es para alabar a Dios; y suelen ser los concursos de mucha gente, que tal vez se han visto más de dos mil personas de Francia juntas; y con ser estos años, en que se escribe esta historia, tan calamitosos y de tantas guerras entre estos dos Reynos, no por eso faltan a su piedad y devoción, sino que con el mismo afecto que antes vienen atropellando muchas dificultades, trayendo muchas limosnas a esta santa casa, de plata y oro. Luego por el mes de Octubre del mismo año, que es cuando vuelven los navíos de Terranova, apenas saltan en tierra los piadosos marineros, cuando aun sabiendo que han estado aquí sus mujeres y parientas, vienen en tropas de a veinte y treinta, todos a pie, y muchos descalzos con gran devoción a rendir gracias a la Virgen Señora nuestra, que por medios de esta santa imagen los ha librado de tantos peligros y tormentas, como se padecen en el mar, y hacen de nuevo sus limosnas; con que viene este convento a tener gran socorro de la nación Francesa”.

Hasta aquí la cita del P. Gamarra, autor de esta Hitoria. Gamarra describe aquí a estos peregrinos como si fueran meros franceses, pero en otro lugar de su historia puntualiza mejor la región a que pertenecen: Provincia de Labort, es decir, Lapurdi, como hoy decimos.

Estas cosas pasaban en tiempos de Axular. Pero, claro, las guerras entre España y Francia acabaron con esta peregrinación. ¿Y qué hicieron los peregrinos labortanos al no poder acudir a Aránzazu?: pues crear una sucursal, por así decir, de Aránzazu en su propio territorio, en Ainhoa, junto a la frontera política: Arantzeko Ama Birjina. J. Olhagaray escribió la historia de esta capilla de Ainhoa. Allí acudían luego los pescadores de la costa labortana y sus familiares. Algunos años más tarde, con el tratado de Utrecht, Terranova pasaría a pertenecer a Inglaterra, con lo que acabaron también los viajes a Terranova.

Axular se estableció como párroco en Sara, no sin tener que vencer dificultades para ello, pues un clérigo que quería para sí el curato, le plantó pleito alegando que un español no podía tener un cargo con beneficio en Francia. Lo curioso es que Axular perdió el pleito, pero a pesar de ello, gracias a la protección del Rey, no fue molestado. Enrique IV, que se titulaba rey de Francia y de Navarra, debió de decir que un navarro no podía ser considerado extranjero en Francia; pese a todo, la sentencia adversa del tribunal también se mantuvo en pie, pero no le afectó a Axular. ¡Sutilezas de la jurisprudencia y de la política!

Sara, donde Axular ejercía de párroco, se halla a pocos kilómetros de la costa, y en ésta se encuentran S. Juan de Luz y Ciboure, que constituían el cogollo, por así decir, de la provincia de Labort. Y fue en este triángulo, San Juan de Luz-Ciboure-Sara donde en estos años se inicia un movimiento literario de cultivo del euskara, obra de una peña de amigos que se reunían para animarse mutuamente. Conocemos algunos nombres de la dicha tertulia: el franciscano Materre, Etcheberri de Ciboure, Guillentena, el médico Hirigoity y, por supuesto, Axular. Este nos dice, en el prólogo al lector que figura al frente del *Guero*, cómo surgió la idea de componer el libro. Hallándose reunidos los amigos, tal vez en el conventito franciscano de Ciboure, salió a colación el tema que había de constituir el argumento del *Guero*, a saber, que nada daña tanto a la vida cristiana y a la conversión como la falsa seguridad y confianza de que se convertirán, sí, pero más tarde, luego. Seguidamente se trató de que había que hacer un libro en vasco sobre esto y, por fin, se pasó a designar quién había de ser el autor, y todos volvieron los ojos a Axular, el cual sobresalía por sus dotes de ciencia y de orador sagrado. Este fue, pues, el origen del *Guero* y este es el argumento que da perfecta unidad al libro.

Se trata, por su género y estilo, de una obra renacentista, en que el autor hace gala de una erudición notable, pero no por eso el libro deja

de estar pensado en vasco y dirigido a un público vasco parlante. Se ve que el autor domina a perfección el instrumento que maneja y conoce los recursos del mismo, cosa que se revela por los giros, modismos, proverbios, juegos de palabras, etc. Creo que se puede decir, sin temor a equivocarse, que Axular es el verdadero creador de la prosa vasca. Es verdad que antes de Axular escribió Leizarraga la traducción del Nuevo Testamento, pero se trata de una traducción y de unos textos en que apenas hay lugar para unos amplios desarrollos. En el *Guero*, en cambio, el autor adopta un género lógico-discursivo, tiene que argumentar, rebatir al adversario, explayarse en amplias exposiciones. Para esto necesitaba el instrumento de una prosa desarrollada, que ya por sus sermones Axular la tenía más o menos lograda.

El género de prosa que emplea Axular es, en líneas generales, el mismo que es común a las lenguas de Occidente, que a su vez siguieron en esto la tradición grecolatina. Desgraciadamente, en nuestro siglo, por un intempestivo purismo, entre nosotros se ha interrumpido esta tradición, con daño para nosotros. Yo creo que el volver a empalmar con ella, con las matizaciones que sea preciso, nos es necesario para llegar a una prosa normalizada.

Para terminar, he de decir que cuando yo concebí la idea de reeditar el *Guero* con ortografía actualizada y acompañado de la traducción castellana —que hasta entonces no existía—, hice algunas gestiones o sondeos para hallar en el país algún editor que se hiciera cargo de la publicación. No lo hallé. “¿Quién va a leer eso? No va a tener salida”, me decían. Y tuve que acudir a Madrid y a Barcelona. La colección Espirituales Españoles de Madrid y la editorial Juan Flors de Barcelona admitieron la obra. La impresión se hizo en Gráficas Izarra, de S. Sebastián. Esto fue en el año de 1964. Tuvo más éxito de lo que se esperaba. Tanto es así que D. Pedro Sainz Rodríguez, asesor de la colección, me dijo: “El *Guero* de Axular es el único libro de la colección que se ha agotado. Esto es algo extraño, que no me lo explico, a no ser que ande de por medio la política”. Yo le contesté: “¿Política? No sé. Mire Vd.: Salvadas las distancias, Axular es en vasco algo así como lo que es Cervantes en castellano. Hoy hay una juventud que quiere formarse a fondo en el conocimiento y manejo del euskera y sabe que para esto no hay otra cosa mejor que el manejo de una obra maestra de esta literatura, y claro, al encontrarse con esta edición, pues la han adquirido. Eso es todo”.

Con esto queda dicho brevemente qué clase de obra tenemos delante, publicada ahora por primera vez en edición facsímil. Muchas gracias de parte de la Academia y del pueblo vasco al Sr. Velasco, director general del Instituto Nacional del Libro Español, y a cuantos han intervenido en la materialización de este proyecto: Juanito San Martín, Juanjo Zearreta, talleres Grafo, etc.